

28. FITXA **Ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak**

Norentzat: 1. *pizgarri-programa:* edozein administrazio publikotako **sektore publiko instituzionaleko edozein erakunde**, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikuluari dagokiona. 2. *pizgarri-programa:* toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako **lurralde-mailako toki-erakundeak** edo **beste edozein toki-erakunde edo toki-erakundez gaindiko erakunde**, aurrekoen bestelakoa izanik, legez eraturia eta berezko nortasun juridikoa duena bada.

Erreferentzia araudia: [EHAHV](#)

Sarbide-esteka: [Energiaren Euskal Erakundea \(EVE\)](#)

Eremuak: Energia berriztagarri termikoak

Zenbatekoa: **7.779.253,77 €** (1. programa: 6.071.394,61 €; 2. programa: 1.707.859,16 €)

Aurkezpen amaiera data: **2022/03/24tik 2023/12/31ra** edo funtsak agortu arte

Laburpena

Programa honen bidez, instalazio berriztagarri termikoak hedatzen lagundu nahi da, eta, horrekin batera, sektore publiko zein pribatuko eraikinetan, establezimenduetan eta bizitegi ez diren azpiegituretan ezarri. Jarduera hautagarriak dira:

- Eraikinetan hotza edota beroa sortzeko aplikazio termikoak.
- Tenperatura baxu, ertain eta altuko aplikazioak produkzio-prozesuetan edo beste aplikazio termiko batzuetan.
- Eguzki energia termikoa.
- Geotermia eta ingurumen-energia (aerotermia eta hidrotermia).
- Biomasa.
- Bero zein hotz-barrutiko mikro sareak.

Jarduera-lerroak

1. pizgarri-programa: Energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea sektore hauetan: industrian, nekazaritzan eta abeltzaintzan, zerbitzuetan eta ekonomiaren beste zerbitzu batzuetako bizitegi-sektorean. Programa-lerro horretarako onuradunek ondasunak edo zerbitzuak eskaini behar dituzte merkatuan, eta honako hauek izan daitezke:

- Pertsona fisikoak.
- Pertsona juridikoak.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren **urriaren 1eko 40/2015 Legearen (hemendik aurrera «40/2015 Legea»)** **2.2 artikulua** erreferentzia egiten dien **administrazio publikoen arteko edozeinetako sektore publiko instituzionaleko edozein entitate**, baita zuzenbide pribatuko entitateak edo irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak ere.
- Aurreko hiru puntuetako figuren baitan dauden edozein talde, elkarte, partzuergo zein bestelako lankidetzak-modua duen edozein erakunde, nortasun juridikoarekin zein gabe.

2. pizgarri-programa: energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea egoitza-izaera ez duten eraikinetan, sektore publikoko establezimenduetan eta azpiegituretan. Programa-lerro horretarako onuradunek ez dituzte merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaini behar eta honako hauek izan daitezke:

- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen **apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako lurralde-mailako toki-erakundeak**, edo aurrekoez bestelako **beste edozein tokiko edo tokiz gaindiko entitate**, betiere legez eratu bada eta nortasun juridiko propioa badu.
- 40/2015 Legearen 2.2 artikulua erreferentzia egiten dien administrazio publikoen arteko edozeinetako sektore publiko instituzionaleko edozein entitate, baita zuzenbide pribatuko entitateak edo irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak ere.
- Aurreko hiru puntuetako figuretako edozeinetako talde, elkarte, partzuergo zein beste edozein kolaborazio modutako erakundeak, nortasun juridikoarekin edo gabe.

Gastuetarako aldi hautagarria

Jarraian adierazitakoaren ondoren hasitako jarduketak baino ez dira onartuko:

- **1. pizgarri-programa:** laguntza-eskaera erregistratzen den eguna.
- **2. pizgarri-programa:** 2021eko abenduaren 22an.

Bestalde, laguntzen azken hartzaileek laguntzaren xede den jarduera egin, fakturatu eta ordaindu izana justifikatu beharko dute, gehienez ere 18 hilabeteko epean, laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Laguntza (itzuli beharrik gabeko diru-laguntza) diruz lagundu daitezkeen kostu osoaren gaineko ehuneko gisa kalkulatzen da:

1. pizgarri-programa, diruz lagun daitezkeen kostuaren kalkulua: $Ksu = Khu - Kuf$

Non:

- Khu: ekoizpen-instalazioaren kostu hautagarri unitarioa, €/ kW-tan; kostu hautagarri osoa zati benetan instalatutako ekoizpen-potentzia (Ps).
- Kuf: erreferentziako instalazioaren unitateko kostua, €/ kW-tan.

Kostu subentzionagarri unitarioa bat etorriko da aurreko adierazpenean oinarrituta kalkulatutako balio horrekin, betiere diruz lagundu daitezkeen gehieneko kostu unitarioen mugak gainditzen ez badira, honako taula honetan jarduketa bakoitzerako definitutakoak; kasu horretan, balio horrek (Ksum) mugatuko du kostu subentzionagarri unitarioa (Ksu).

Jarduketa subentzionagarriak	Khum kostu hautagarri unitario maximoa (€/kW)	Kuf erreferentziako instalazioaren kostu unitarioa (Kuf) (€/kW)	Ksum kostu subentzionagarri unitario maximoa (€/kW)
Instalazio geotermikoak edo hidrotermikoak	2.130	130	2.000
Instalazio aerotermikoak	1.130	130	1.000
Eguzki instalazio termikoa ⁽¹⁾	1.070	0	1.070
Biomasa errekontzita-ganbera ⁽²⁾	100	50	50
Biomasa-galdarak eta toki-berokuntzako aparatuek ⁽²⁾	500	70	430
Banaketako tutuen sare berrien garapena eta truke-azpiestazioak edo egungoak handitzea sorkuntza-zentral berrietarako edo daudenetarako ⁽³⁾	450	0	450

⁽¹⁾ Hotza produzitzeko sistemak energia termikoaren bidez –hala nola absortzioko, adsortzioko eta abarreko makinak– inkorporatzen badira, % 50ean gehituko da kostu subentzionagarri unitario maximoa.

⁽²⁾ Erregaia % 100 berriztagarria izango da eta ez da baimenduko kimikoki tratatuak izan diren zuretatik datozen erregaiek erabiltzea.

⁽³⁾ Truke-potentzian neurtuko da potentzia.

2. pizgarri-programa: programa honetako jarduketetarako diruz lagundu daitekeen kostua kostu hautagarriaren berdina izango da, eta ekoizpen termikoko instalazioaren (Ksu = Khu) kostu hautagarri unitarioaren gainean zehaztuko da, betiere diruz lagundu daitekeen gehieneko kostu unitarioa gainditzen ez bada.

Jarduketa subentzionagarriak	Ksum kostu subentzionagarri unitario maximoa edo Khum kostu hautagarri unitario maximoa (€/kW)
Instalazio geotermikoak edo hidrottermikoak	2.000
Instalazio aerotermikoak	1.000
Eguzki instalazio termikoa ⁽¹⁾	1.070
Biomasa errekontza-ganbera ⁽²⁾	100
Biomasa-galdarak eta toki-berokuntzako aparatuak ⁽²⁾	500
Banaketako tutuen sare eta truke-azpiestazio berriak garatzea, edo daudenak handitzea sorkuntza-zentral berrietarako edo daudenetarako ⁽³⁾	450

⁽¹⁾ Hotza produzitzeko sistemak energia termikoaren bidez –hala nola adsortzioko, adsortzioko eta abarrek makinak– inkorporatzen badira, % 50ean gehituko da kostu subentzionagarri unitario maximoa.

⁽²⁾ Erregaiak % 100 berriztagarria izango da eta ez da baimenduko kimikoki tratatuak izan diren zuretatik datozen erregaiak erabiltzea.

⁽³⁾ Truke-potentzian neurtuko da potentzia.

Ekoizpen termikoko instalazioaren guztizko kostu subentzionagarria honako hau izango da:

$$\text{Kostu subentzionagarria guztira (€)} = Ksu \times Ps;$$

non Ps benetan kW-etan instalatutako ekoizpen termikoko potentzia den.

Diruz lagundu daitekeen kostuari ehuneko hauek aplikatuko zaizkio:

→ **1. pizgarri-programa:**

	% oinarrizko laguntza enpresa handia	% oinarrizko laguntza enpresa ertaina	% oinarrizko laguntza enpresa txikia
1. pizgarri-programa	% 35	% 40	% 45

→ **2. pizgarri-programa:** % 70

Gainera, % 5 gehiago aplikatu ahal izango da jarduera Erronka Demografikoko udalerrietan egiten bada.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

- Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologiekin zerikusia duten ekipo eta materialetan inbertitzea.
- Erlazionatutako obrak egiteko edota instalazioak jartzeko kostuak.
- Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta osagarriak, laguntzaren xede den jarduketari lotuta daudenean.
- Kudeaketa-, kontrol aktibo- eta monitorizazio-sistemak, laguntzaren xede den proiektuak hornitzen dituen instalazio kontsumitzaileen energia termikoaren ekoizpenari eta eskariari dagokienak. Ekipamendu horiek laguntzaren onuradunaren jabetzakoak izan beharko dute, eta laguntzaren xede den jarduketari lotuta egon beharko dute.
- Obra zibilak, laguntzaren xede diren jarduketekin eta proiektua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak direnekin zerikusia dutenean (ikusitako xehetasunak oinarrietan).
- Barne-banaketa eta ekipo terminalak bero-ponpako instalazioetan aukeratu ahal izango dira, betiere eraginkortasun handiko ekipo terminalak instalatzen badira.
- Kokagunean dauden instalazioak eraistearen kostua hautagarritzat hartuko da, baldin eta sortutako eraikuntza eta eraipen-hondakinen % 70 (pisu garbian), gutxienez (LER 17 05 04 kodea duten hondakinak izan ezik), beste material batzuk berreraikitzeko, birziklatzeko eta errebalorizatzekeo prestatzen badira.

- Laguntzaren xede diren jarduera-tipologiek in lotutako proiektuak edo memoria teknikoak idaztearen kostuak.
- Laguntzaren xede diren jarduketak-tipologiek in zerikusia duten zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.
- Obraren segurtasuna eta osasuna koordinatzea eta laguntzaren xede diren jarduketak-tipologiek in lotutako muntaia.
- Laguntza-eskaeraren kudeaketa-kostuak, txostenak eta eskabiderako eskatutako gainerako agiriak idaztea barne.
- Jarduketak egin izanaren justifikazioa kudeatzeko kostuak, txostenak idazteko kostuak eta laguntza hauek justifikatzeko eskatzen den gainerako dokumentazioa barne.
- Auditorearen justifikazio-kontuari buruzko txostena.
- Behar bezala justifikatutako beste partida batzuk (gehirgarriak zein ez gehigarriak), diruz lagundu ezin diren gastu gisa jasotakoez bestelakoak. Partida honek, aurreko biek in batera, ezin du eskatutako laguntzaren % 7 gainditu, ezta 7.000 euro ere espediente bakoitzeko.

Diruz lagun ezin daitezkeen gastuak:

- Jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) (2. pizgarri-programarako, kostu hautagarritzat hartuko da jasandako BEZa, baldin eta ezin badira berreskuratu edo konpentsatu, osorik edo zati batean
- Norberaren gastuak, langileenak, funtzionamendukoak edo gastu orokorrak.
- Ingurumen-inpaktuaren azterketak eta proiektu tekniko oniritzi-kostuak.
- Eskatzaileak proiektua garatzeko egiten dituen beste edozein sustapen-gastu.
- Administrazio-baimenak, lizentziak, abalak edota fidantzen kostua, isunak, tasak eta zergak.
- Administrazio-kudeaketa, kontratazio, kontsulta edo izapideei lotutako edozein gastu, nahiz eta beharrezkoak izan baimenak edo lizentziak lortzeko, baldin eta ez badaude baimen edo lizentzia horien barruan.
- Inbertsio-proiekturako nahiz ebakuazio-azpiegituretarako erabilitako lurak erosteko edo errentan hartzeko kostua.
- Eskatzaileak izenpetutako aseguruak.
- Obra gauzatzen den bitartean egin beharreko zaintza eta segurtasuna, obra martxan jarri arte.
- Errepide publikoetako eta instalaziora arte dauden bideetako sarbideak egokitzea.
- Finantza-kostuak.